

IZENA EMATEKO PROZESUA

PLAZA BERRITZEA (JARDUNEAN DAUDEN IKASTAROGILEAK)

- Haur-ikastaroen plazak automatikoki berrituko dira, baja berariaz adierazi eta dagokion dokumentua sinatu ezean.
- Ikastaro amaierako ebaluazio-txostenarekin batera, familiek hurrengo denboraldirako talde berriaren esleipena jasoko dute (maila berria, taldearen egunak eta ordutegia).
- Jardunean dauden ikastarogileek ordutegi aldaketa eskatu ahal izango dute, baina jatorriko plaza mantendu beharko dute, eskatutako talde aldaketa gauzatzea ezinezkoa bada.
- Aurreko denboraldiko ikastarogileentzako berritze automatikoan baja eskatzeko epea:** Ekainaren 3tik 16ra arte (biak barne)

ALTA BERRIAK (ABONATUAK DIREN PERTSONAK BAKARRIK)

- Aurreinskripzio-prozesua**
 - Ikasle berrientzako plazak zozketa bidez esleituko dira.
 - Zozketan parte hartzeko, beharrezkoa da nahi den taldean edo taldeetan aurrez izena ematea.
 - Zozketa bakarrik egingo da aurrez izena emandako pertsonen kopurua eskainitako plazena baino handiagoa bada.
- Aurreinskripzioak egin ahal izateko baldintzak**
 - Abonatutako pertsona bezala altan egotea
 - Haurrentzako uretako jardueretan, igeriketa-eskolako maila bat egiaztatuta izatea edo maila-proba bat eginda izatea. Ez dute maila-probarik egin beharko 2021, 2022 eta 2023. urteetan jaiotako haurrek.
- Aurreinskripzioa egiteko epea:** Ekainaren 24tik ekainaren 30era arte (biak barne)
- Zozketa eta plaza berrestea:** Uztailaren 1ean
- Itxarote-zerrenda**
 - Plazarik egokitu ez zaien pertsonak dagozkien taldeen itxaron-zerrendan sartuko dira, eta bertan mantenduko dira 2024-2025 ikasturtean.

INSKRIPZIO LIBREA (ABONATU ETA ABONATU EZ DIREN PERTSONAK)

- Abonatuak eta bazkide ez diren pertsonak zuzenean eman ahal izango dute izena plaza librean dituzten ikastaroetan.
- Epea:** Uztailaren 8tik aurrera

IKASTAROEN ORDAINKETAK

- Ikastaroen ordainketak bankutik helbideratuta eta hiru hiletik behin kobratuko dira.
- Ikastaroaren lehenengo epealdiaren ordainketa uztailen izango da.
- Inskripzio librearen epean egindako alta berriak izena emateko momentuan esku diruz edo txartelaz ordaindu beharko dira. Hurrengo kuotak bankutik helbideratuta kobratuko dira.
- Nahiz eta epealdi bakoitzak saio kopuru desberdina eduki ikastaroaren epealdi bakoitzeko kuotaren emaitza finkoa da.
- Ikastaroetako kuotak ez ordaintzearen ondorioa beste ikastaroetan izena emateko eskubidea eta plaza galtzea izango da.

2024-2025 DENBORALDIKO EGUTEGIA

Ikasturtea hiru epealditan dago banatuta:

- Lehenengo epealdia: 2024ko irailaren 30etik abenduaren 20ra.
- Bigarren epealdia: 2025eko urtarrilaren 7tik 2025ko martxoaren 23ra.
- Hirugarren epealdia: 2025eko martxoaren 24tik ekainaren 15era.

Jai egun ofizialak ez dira eskola egunak izango, ezta Gabonetako eta Aste Santuko oporraldiak ere (abenduaren 21etik urtarrilaren 7ra eta apirilaren 14tik 27ra).

BAJAK IKASTAROETAN

- Behin hasierako izen-ematea gauzatuta, 2024ko irailaren 15era arte baja eman ahal izango da. Data horretatik aurrera ez da onartuko baja ematerik, eta ez da itzulketarik egingo.
- Denboraldian zehar ikastaroan baja eman nahi izanez gero, jarduera egiten den instalazioko harreran jakinarazi beharko da indarrean dagoen epealdia amaitu baino lehen 15 egun lehenago, eta dagokion baja-agiria sinatu beharko da.
- Jarduera egiteko ezintasuna duela adierazten duen agiri medikua aurkezten duenari, ordaindutako kopuruari dagokion zati proportzionala itzuliko zaio.

HAUR IGERIKETA ESKOLAKO EBALUAZIOAK ETA TALDEEN BERRANTOLAKETAK

- Arrazoi teknikoengatik, igeriketa taldeak hiru hilean behin ebaluatuko dira.
- Ebaluazio horren ondorioz, haurrak beren progresioaren arabera dagokien taldeetan birkokatuko dira. Litekeena da jatorrizko ordutegietan aldaketak gertatzea.

HAURRENTZAKO IGERIKETA ESKOLAKO TXANOAK

- Igeriketa eskolako mailetako txanoak erabat doan emango dira inskripzio berriarekin edo mailaz aldatzeko unean.
- Eskolako txanoak salgai daude, galtze edo hausturetarako.

IKASTURTEAN ZEHAR TALDEZ ALDATZEKO ESKAERAK

- Hirugarren epealdian, 2025ko maiatzaren 15etik aurrera, ez da onartuko talde aldaketarik edo inskripzio berririk egitea.

IKASTAROAK BERTAN BEHERA UZTEA ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK

- Errenteriako Udalak jarduera bertan behera utzi ahal izango ditu ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona kopuru batek izena ematen ez bada.
- Errenteriako Udalak, antolaketa arazoak direla eta, ikastaroen ordutegia eta egunak, eta instalazioak aldatu ahal izango ditu, baita ikastaroak ematen dituzten langileak aldatu ere.

ALDAGELEN ERABILERA

- Derrigorrezkoa da ikastarogileentzat erreserbatutako aldagelak eta armairuak soilik erabiltzea objektu pertsonalak gordetzeko.
- Ikastarogile bakoitzarekin heldu bakar bat sartu ahal izango da aldagelara.
- Derrigorrezkoa da instalazioetako langileen jarraibideak kontuan hartzea.
- Derrigorrezkoa da dutxa guneeetan sartzeko oinetako egokiak erabiltzea (txankletak edo antzekoak).

BESTE KONTSIDERAZIO BATZUK

Gurasoek eta tutoreek seme-alabak komunera laguntzeko ardura izango dute. Pertsona horiek lokalizatzeko aukerarik ez balego, instalazioko langileek lagunduko dute haurra komunera, behar izanez gero.